

# ***Ingurumen Buletina***

- 1. Zer gertatzen da eta gertatuko da argiaren fakturarekin?***
- 2. Garoña ezin da berriro ireki. Ez dugu utziko!***
- 3. Zabalgarbiren lege hausturak eta tranpak.***
- 4. Kimika sektoreko patronala, CCOO eta UGT Fracking-a defendatzen.***
- 5. Energia Eredu Berri Baten Aldeko Plataforma.***

### 1. Zer gertatzen da eta gertatuko da argiaren fakturarekin?

Norbaitek ulertzen al du elektrizitatearen faktura? Berdin da zein konpainiarekin dugun kontratua, pertsona gehienon begietara ulertezina da faktura. Artikulu honek ez du helburu gure faktura azaltzea, gustatuko litzaiguke. Momentu honetan ez dakigu hurrengo hilabeteetan nola fakturatuko den ere. Erreforma garaian gaude (bat gehiago) eta pista batzuk bakarrik ditugu.

Baina goazen egoera honen hasierara, edo behintzat elektrizitatearen gehiegizko prezioaren arrazoietakoz batzuk ezagutzera. (2006 eta 2013 artean argindarraren igoera %70ekoa izan da). Zer gertatuko da apirileko fakturan indarrean egongo den erreformarekin?.

Denok entzun izan dugu tarifa defizitari buruzko zerbait. Argindarraren prezio altuaren arrazoietakoz bat da. 2002an urteko %2ko igoera baino handiagorik egongo ez zela erabaki zen. Teorian, honek ez zituen produkzio kosteak ordaintzen, eta zorra metatzen joan da. Inoiz auditatu ez den zorra da, ez dagoelako hori egingo duen mekanismo gardenik. Pertsona askok uste dugu benetan ez dagoela defizitik, eta hau aitzakiatzat hartuta irabazi galantak izaten dituztela. Hau

da, elektrizitate enpresek ez dute gutxiago kobratzen, kontsumitzaileok gehiegi ordaintzen diegu.

Gainera, enpresa hauek zor hori kobratu dute, zorra baloreen merkatuan saldu baitzuten eta orain inbertsio banku atzerritarrei zor diegu gehienbat.

Kilobatio bakoitzak ez du produkzio koste bera izaten. Ez da berdina ziklo konbinatuko zentral batean ekoiztea edo zentral hidroelektriko edo fotovoltaiko batetik etortzea. Hala ere, argindar dena berdin ordaintzen dugu, garestienaren prezioan. Elektrizitate enpresek produkzioan aurrezten dutenak ez du eraginik gure fakturan, berain irabazien gorakadan baizik. Defizita ez da produkzio kostuen islada, irabazi mamitsu bat da.

Beste kontu bat, gure kontsumoagatik ordaintzen duguna. Gaur egun fakturaren hazkundera bere atal finkoan ematen da, ez kontsumoan edo atal aldagarrian. Hau da, berdin da energia kontsumoan aurreztea fakturak behera egingo duela pentsatuz, gastuaren %60a ezin dugu kontrolatu.

2013ko abendura arte elektrizitatearen prezioa enkante bidez ezartzen zen. Enkante sistema ekoizleek kontrolatzen zuten eta argindarraren

prezioarekin nahi zutena egiten zuten. Azken honetan, 2014ko urtarrilerako %11ko beste igoera bat ezarri zen. Baina enkante hau Rajoyren gobernuak bertan behera utzi zuen eta erreforma bat iragarri zuen. Erreforma honek beste gauza batzuen artean argindarraren azken prezioa ezartzen duten enkanteak bertan behera utziko ditu, baina ez du faktura argituko, eta gutxiago prezioa jaitzi. Egin den proposamena elektrizitateak momentuan daukan prezioaren arabera ordaintzea da. Baina horretarako beste modu bateko kontagailuak behar ditugu eta orain bertan kontsumitzaileen %10ak bakarrik ditu. Ez badugu horrelako kontagailurik, tarifa finko bat ezarriko zaigu, garestiagoa izango dena noski. Eta ez daigu zer gehiago egingo duten, argi daukaguna zera da, elektrizitate enpresak izango direla onuradunak, horretarako erabakitzen baitituzte erreformak gobernu hauetan, zeintzuk politikatik jubilatzen direnean enpresa hauen administrazio kontseiluetara pasatzen diren.

## **2. Garoña ezin da berriro ireki. Ez dugu utziko!**

PPko gobernuak dekretu bidez aldatu zuen otsailaren 21ean Garoñako zentral nuklearra berriro irekitzea ahalbidetzen duen

arautegia. Horrela zentralaren jabeak lizentzia berritzea eta berriro irekitzea eskatu dezake hurrengo uztailaren 6a aurretik. Araba Garoñarik gabe Plataformatik, non ELAk parte hartzen duen, askotan salatu dugu zentrala eta berau irekita mantentzeko trikimailu guzti hauek pertsonen osasuna eta segurtasunaren aurka doazela. Garoñako zentralaren jabe diren Iberdrolak eta Endesak osatzen duten oligopolioari men egiten dio espainiar gobernuak. Plataformatik ez gara geldirik geratuko eta bide guztiak erabiliko ditugu 44 urtez martxan egon de zentral hau berriro ireki ez dadin. Horregatik gobernuaren desafioari erantzun bat ematera deitzen ditugu herritarrak. Martxoaren 15ean Gasteizen antolatu dugun manifestazioan parte hartzera deitzen dizuegu, zein Ama Zuriaren enparantzatik irtengo den arratsaldeko 19etan. Ez dugu utziko Garoña berriro ireki dezaten!

## **3. Zabalgarbiren lege hausturak eta tranpak**

Ekologistak Martxanek txosten bat aurkeztu du Zabalgarbik ingurumen legedia nola betetzen ez duen azalduz. Lege hauste hauek hiru arlo ezberdinetan egiten dira:

### *1. Emisio mugak gaindituz.*

2012an lau aldiz gainditu ziren hainbat

elementu kutsatzaileen gehiengo emisioak: azido klorhidrikoa, karbono monoxidoa eta airean geratzen diren partikulak.

### 2. Ez ditu betetzen isurketa irizpideak.

Zabalgarbiren isurketa nagusiak eskoriak, errautsak eta garbiketa hondakinak izan ziren. Eskoriak, hondakin arriskutsuak izan ez daitezen eta inerteen zabortegietara eraman ahal daitezen "metalen lixibiazio froga" deitzen den prozesu bat bete behar dute. 2012an sortutako eskoriek froga honetako mugak gainditu zituzten kobreaki dagokien datuetan, beraz hondakin arriskutsuak ziren eta hondakin arriskutsuen zabortegira eraman behar ziren. Ez zen horrela egin eta inerteen zabortegei arruntera eraman ziren.

### 3. Ez da balorizazio instalazio bat, hondakinak deusezteko (eliminatze) instalazio bat da.

Zabalgarbi aldi berean hondakinaren erraustegi bat eta energia ekoizteko gas naturala erabiltzen duen ziklo konbinatuko instalazio bat da. Hau da, Zabalgarbin sortzen den energiaren zati handiena ez dator hondakinak balorizatzen, gasa erretzen baino, beraz ezin da energia berriztagarri bezala kontuan hartu. Zabalgarbin ekoizten den energiaren %15 soilik dator hondakinak erretzen eta hau bakarrik hartu beharko

litzateke energia berriztagarritzat. Zabalgarbik bezalako efizientzia baxuarekin energia sortzea ere ezin daiteke balorizazio energetiko kontsideratu. Europako legediak balorizazio instalazioei efizientzia formula batekin betetzea exijitzen die, honen arabera balorizazio instalazioek 0,60 edo emaitza handiagoa eman behar dute efizientea dela ziurtatu eta balorizazio gisa hartzeko. Zabalgarbi kudeatzen dutenek diote balore hau 0,63koa dela, baina Ekologistak Martxanek akats metodologikoak bilatu ditu formula hau kalkulatzekoan eta Zabalgarbik formula honetan duen emaitza 0,59koa dela dio. Honen arabera beraz, hondakinak deusezteko instalazio bat da eta ez balorizazio energetikoa duena. Eta Europako Hondakinaren Direktibak ezartzen duen ierarkian azken postuan egongo litzateke, zabortege inerteen pare.

Gainera formula hau era ezberdinean kalkulatu zen 2011 eta 2012an. Honi buruzko azalpenak eskatu dira Eusko Jaurlaritzan eta erantzuna, Ekologistak Martxan aburuz berandu eman da eta etsigarria eta kontraesanez bete izan da. Datu batzuk oraindik egiaztatu gabe dituzte (Eusko Jaurlaritzaren betebeharra datuak egiaztatzea da), eta hondakin arriskutsuek araudiaren

mugak gainditzen zituztela onartu dute.

ELAk urteak daramatza Zabalgarbi osasunerako eta ingurumenerako arriskutsuak direla salatzen, orain lege hauste hauek baieztatu duten bezala. Balorizazio energetikorako instalazio bat izan beharrean hondakinak deusezteko instalazio bat dela eta sortzen duen energiaren %85a berriztagarria ez dela ere salatu dugu. Ez da hondakinen kudeaketarako eredu aipagarri bat, guztiz kontrakoa baino.

Erraustegien aldekoek erabiltzen duten beste argumentu bat kostarena da, beraiek diotenez zero zabor helburura gerturatzen diren kudeaketa sistemak baino merkeagoa omen da. Zabalgarbik 2012an 1,7 milioi euroko balantze positiboa aurkeztu zuen. Baina hau ez da dirudiena. 19,75 milioi euro jasotzen ditu Erregimen Bereziko primen bidez, honek erretzen den hondakin tona bakoitzeko 88 euroko prima suposatzen du. Zabalgarbik ez luke iraungo prima hauek izango ez balitu. Honek baieztatzen du azken urteetan esan duguna, errausketa hondakinen gestiorako sistema oso garestia dela.

#### **4. Estatuko kimikako patronal, CCOO eta UGT batuta Frackingaren defentsan**

Kataluniako

Parlamentak

Aurrekontuen Akonpainamendu Legean atal bat onartu du non ezinezko egiten den beraien lurraldean Frackinga erabiltzea. Kantabriak ere egin du Frackingaren aurkako bere legea, nahiz eta momentu honetan espainiar gobernuak errekurritu duen.

EAEen Fracking ez Araban Plataformak bultzatuta Herri Ekimen Legegilea aurkeztuko du bigarren aldiz hemen ere Frackingaren aurkako legea izan dezagun. Ikusiko dugu zer gertatuko den, Eusko Jaurlaritza ez baita ekimen honen aldekoa.

Eta administrazio batzuk osasunarentzat eta ingurumenarentzat hain arriskutsua den ez ohiko gasaren esplotazioaren aurkako araudia egiten ari diren bitartean, energia fosil eta arriskutsu honen potentziala "ikertzen" jarraitzeko eskatzen ari dira. Oraingoan estatu mailako kimikako patronala, CCOO eta UGT izan dira.

Urtarrilaren 31n Madrilen adierazpen bateratu bat sinatu zuten ez ohiko gas honen inguruan izenburu honekin: " Erabakitze esploratu". FeiQue, UGT FITAG eta CCOO Fiteqa-k sinatu zuten, hau da industria kimikako patronalak eta CCOO eta UGTko kimikako federazioek. Ez ohiko gasa aztertzeke eskatzen dute lanpostuen sorrera, tokiko garapena eta ekarriko dituen onura

guztiengatik. Pertsonen osasuna eta ingurumena suntsituko dituzten enplegu eta tokiko garapenak ez dira onargarriak, lanpostu guztiak ez dira desiragarriak. Energia fosilaren aldeko aldarria ere argi uzten dute. Konpetitiboa den energia merkea ezinbestekoa dela eta hau ez edukitzeak ekonomia eta industriaren konpetitibitatea geldiarazten dituela uste dute. Energia kontsumoa murrizteko beharra eta energia berriztagarriak ez dituzte aipatu ere egiten. Duten kezka energiaren dependentzia eta bere prezioa dira. Baina haratago doaz, orain arte garraioan erabiltzen diren petroliotik eratorritako energia fosilen ordezkoko gisa gas naturala planteatuz, emisio gutxiago eragiten dituelako eta klima aldaketaren aurkako borrokan ezinbesteko papera omen duelako. Ez ohiko gasa ere zaku honetan sartzen dute, esan gabe petroliotik eratorritako erregai fosilak besteko kutsadura eragiten duela, edo gehiago.

Baina kezkatzen dien bakarra ez da energia merkea, kutsakorra izan edo ez, gas naturala beraien sektoreko lehengai garrantzitsu bat da eta azken urteetako prezio altuekin beraien negozioa gutxitzen ari da. Beraz modu zientifiko batean hartu beharreko erabakiaren aldarri bezala azaldu nahi dutena,

beti ere pertsonen osasuna eta segurtasunaren alde, eta ingurumenaren defentsan, benetan beraien sektorearen, sektore kutsakorrenetako baten, eta negozioaren defentsa da.

Puntu honetara iritsita, ezinbestekoa zaigu ELAk defendatzen duen ekonomiaren trantsizio ekologikoaren beharrari aipamena egitea. Sektore hauek, izan kimikoa edo antzeko ezaugarriak dituztenak, ezin dute gaur arte funtzionatu duten parametroekin funtzionatzen jarraitu: energia fosilen eta material ez berriztagarrien gehiegizko kontsumoa, klima aldaketaren arduraren duten sektore kutsatzaileen ingurumen kaltea, eta industria hauek sortzen dituzten hondakin arriskutsu kopuru izugarriak. Aurrerantz ihes egiten jarraitu nahi duten arren, industriarako ezinbestekoak diren petrolioaren eta beste lehengai batzuen mugak sektore hauen jarduerak behera egitea ekarriko du, denbora kontua da.

Defendatzen ari direna gaurko ogia baina biharko gosea da, ahaztu gabe gaurko ogi hori pozoinduta dagoela. Bada garaia ekonomiaren trantsizioan aurrera egiteko politika industrialak planteatzekoa, gainontzekoak paretaren kontra jotzera eramaten gaituzten neurriak dira. Hauek egin

du ten eskaera hau kolapsorantz garamatzen bultzada bat da, beste bat.

## **5. Energia Eredu Berri Baten Aldeko Plataforma**

Urtarrilaren 25ean EAEko “Energia Eredu Berri Baten Aldeko Plataforma” aurkeztu zen. ELAk parte hartzen duen plataforma hau estatu mailako plataforma baten nodo independentea da. Bere helburua energia ereduaren aldaketa bultzatzea da, eredu hau energia berriztagarrian oinarritzea eta denok energia eskuratu ahal izatea da. Egungo sistema energetikoari aurre egin nahi diogu, multinazional gutxi batzuei mesede

egiten dien eta bitartean pobrezia energetikoa etengabe zabaltzea posible egiten duen sistemaren aurka. Mobilizazioa ezinbestekoa da aldaketa hau aurrera eramateko, eta horrela egingo dugu. Baina informazio kanpainak ere martxan jarriko ditugu eta gai honen inguruan presioa egingo dugu. Dagoeneko euskal hiriburu guztietan pobrezia energetikoaren aurkako kontzentrazioak egin dira eta hurrengo mobilizazioen berri ere emango dizuegu.

Bitartean plataformari buruzko informazio aurkitu dezakezen web orrian, [hemen](#) klik eginda.